

Tolosa-Uztaritze senidetzea elkartearen bulegoko bilkuraren bilduma : 2015/02/18

Parte hartzaileak : Beñat CASTORENE, Terexa ARBELAITZ, Peio BERHOCOIRIGOIN, Miguel HARAN, Pierre HAIRA, Dani DUHALDE, Isabelle LAGRUE, Maite HARAN eta Lore ARISTIZABAL

1. Elkartearen funtzioa berriz orroitarazi da :
 - **Uztaritzeko elkarteak bultzatu Tolosako elkarteekin harremantzen, eta horretarako komunikazio lana segurtatu (Herriko etxeko web gunea) eta proiektuen muntaketan lagundu.** Horretarako, ezinbestekoa da Tolosako ekimenen edo/ta hitzordu garrantzitsuen egutegia + elkarte eta egituren zerrenda ukatea : heldu den asteartean Maite eta Lorek hitzordua dute Tolosako udaletxean, beraz eskatuko diete. Helburua da bulegoak izaten ahal diren hitzorduak aurre ikustea Uztaritzeko elkarteak bultzatzeko (adibidez herriko festak, Lapurtarren biltzarra, etab.).
 - **Elkarte gisa senidetzearen inguruan izaten ahal diren proiektu eta ekimen orokorrak antolatu** (Herriko etxeak azpi-egitura eta diru mailan lagunduko du). Ideiak atera dira :
 - o Konferentziak ;
 - o Sagarnotegi ateraldia ;
 - o Memoria historikoari buruz dugun proiektua : Uztaritzen eta inguruan ukaten ahal ditugun pertsona erreferenteak zerrendatzen hasi gara. Diru laguntza eskaera bidalia izan da, hurrengo astelehenean Tolosako udaletxeak prestatutako proiektua bidaliko digute gure ekarpenak egiteko : kideeri transferituko dugu.
2. Senidetzearen inguruan eginen diren ekimenak edo proiektuak **Uztaritzeko inguruari irekitzea** aipatu da.
3. **Enpresa/ekonomia** mailan aski zaila egiten da senidetzea bultzatzeko, eta beraz Tolosan ekonomia eta enpresa mailan aditua den solaskide baten ukateko beharra aipatu da. Bestalde, merkataritza ganbararekin harremanetan sartzeko ideia eman da.
4. Tolosako Galtzaundi elkarteak **martxoaren 21rako gomita** luzatu digu (10 kiderentzat) KORRIKAREN kari antolatzen dituzten ekimenetan parte hartzeko : 10etan merkatuko tourra egin, goiza ekitaldi horietan pasa eta, gero, eragile ezberdinak lanean ibiliko garela eta, elkarrekin bazkaldu. Bazkari horretan, aurrera begirako ideia batzuk lantzeko proposamena egiten denez, gomita hori ekimen bat azkar antolatu behar duten elkarteeri zuzentzea erabaki dugu, hala nola :
 - Uztaritzeko pesta komitea = Lore ;
 - Lapurtarren biltzarra = Dani ;
 - Herri Soinu = Pierre ;
 - Eta Uzta egun hortan merkatu eta komertzioen inguruko ekimena baita = Migel.

Senidetze elkartetik Dani eta Peio joanen dira. Beharrez Herriko etxeko autobus txikien galdera egiten ahal da.

Dena den, egun horren egitasmoa Uztaritzeko herriko etxeko web gunean ezarriko dugu nahi duenari parte hartzeko aukera emateko.

5. **Bulegoaren osaketa** :
 - Lehendakari : Dani DUHALDE

- Lehendakari ordea : Peio BERHOCOIRIGOIN
- Diruzaina : Miguel HARAN (Pierre HAIRAREN laguntzarekin)
- Idazkaria : Isabelle LAGRUE.

Danik behar diren paperak eginen ditu Baionako su-prefeturan grabatzeko.

6. Herriko etxeari **subentzio eskaera** egitea erabaki da / Pierre HAIRA.

7. **Hurrengo bilkura : martxoaren 17an arratseko 6ak30tan LANDAGOIENeko bulegoetan.**

Aipagaiak :

- Herriko etxea eta elkartearen arteko konbenioa (ikus eranskinean emandako dokumentua) ;
- Tolosako ekimenen edo/ta hitzordu garrantzitsuen egutegia ukanen dugunez, martxan jartzen ahal diren proiektuak aurre-ikusi ;
- Memorio historikoaren proiektua ;
- Formakuntza profesionalaren eskaintza bultzatzeko eramanak izanen diren hitzorduen berri eman.
- Beste.

COMPTE-RENDU DE LA REUNION DU BUREAU DE L'ASSOCIATION JUMELAGE TOLOSA-UZTARITZE :
Réunion du 18.02.2015

Etaient présents : Beñat CASTORENE, Terexa ARBELAITZ, Peio BERHOCOIRIGOIN, Miguel HARAN, Pierre HAIRA, Dani DUHALDE, Isabelle LAGRUE, Maite HARAN, Lore ARISTIZABAL.

1 – Rappel de la **fonction** de l'association :

- **Inciter les associations des deux communes à se mettre en relation, et assurer alors le travail de communication (via le site de la mairie) et aider dans la mise en place des projets.** Pour cela, il est indispensable d'être en possession du calendrier des manifestations, des rendez-vous importants et de la liste des associations. La semaine prochaine Maité Haran et Lore Aristizabal ont rendez-vous à la mairie de Tolosa, elles en profiteront pour collecter ces informations. Le but est qu'en amont le bureau ait connaissance des manifestations pour informer et encourager les associations d'Uztaritze (par exemple le comité des fêtes du village, Lapurtarren Biltzarra, etc...);
- En tant qu'association de jumelage, organiser des manifestations et des projets autour du jumelage (la Mairie apportera une aide technique et financière). Quelques propositions :
 - o Conférences,
 - o Sortie en cidrerie,
 - o Projet sur la mémoire historique impulsé par la mairie de Tolosa : nous avons commencé à répertorier les personnes référentes d'Uztaritze et des alentours. Nous avons fait une demande de subvention au niveau européen, lundi prochain la mairie de Tolosa nous enverra le projet qu'elle a préparé afin que nous y apportions nos remarques : nous le transférerons aux membres.

2 – Il est évoqué **la possibilité d'ouvrir aux communes alentours** les manifestations et projets qui se feront autour du jumelage.

3 – Au niveau de **l'économie/entreprise**, il paraît difficile d'impulser le jumelage, par conséquent l'intervention d'une personne de Tolosa qualifiée en économie et en entreprise semble souhaitable. D'autre part, il peut être envisagé de prendre contact avec la Chambre de Commerce et d'Industrie.

4 – Nous avons **une invitation de l'association Galtzaundi de Tolosa** (pour 10 membres) dans le cadre des manifestations qu'elle organise à l'occasion de la KORRIKA : un tour du marché/visite guidée à 10H, suivi d'un repas. Pendant ce déjeuner il est proposé de réfléchir sur des idées et projets qui peuvent être mis en place. Nous avons donc décidé d'adresser cette invitation aux associations qui auront à programmer rapidement une manifestation, par conséquent :

- Comité des fêtes d'Uztaritze : Lore
- Lapurtarren biltzarra : Dani
- Herri Soinu : Pierre
- Uzta : Miguel, car ce jour-là c'est une manifestation concernant le marché.

L'association du jumelage sera représentée par Dani et Peio. Si besoin, il est possible de réserver le minibus de la commune.

Dans tous les cas, le programme de cette journée sera mis sur le site de la mairie afin que tous ceux qui veulent y participer aient l'information.

5 – **Composition du bureau :**

- Président : Dani DUHALDE
- Vice-Président : Peio BERHOCOIRIGOIN
- Trésorier : Miguel HARAN
- Secrétaire : Isabelle LAGRUE

Dani se charge de faire enregistrer les documents à la sous-préfecture de Bayonne.

6 – Il a été décidé de demander **une subvention** à la commune : Pierre HAIRA.

7 – **Prochaine réunion : 17 mars à 18h30 à Landagoien.**

Ordre du jour :

- Convention entre la Mairie et l'association (voir document ci-joint) ;
- Dans la mesure où nous serons en possession du calendrier des manifestations et des dates de rendez-vous importants, nous verrons en amont les projets qui pourront être mis en route ;
- Projet sur la mémoire historique ;
- Information des rendez-vous qui ont eu lieu pour impulser l'offre de formation professionnelle ;
- Divers.